

Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren datu estatistikoek eta COVID-19ak emakumeen aurkako indarkeria matxistan izandako inpaktuaren inguruko laburpena.

2020ko datuak



Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES




Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa eta emakumeen aurkako diskriminazio-forma bat da. Izen horren pean daude emakumeentzat izaera fisikoko, sexualeko, psikologikoko edo ekonomikoko sufrimenduak edo kalteak eragin ditzaketen edo eragiten dituzten eta generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak, honako hauek barne: ekintza horiek egiteko mehatxuak, derringortzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa bizitza publikoan edo pribatuan.

Istanbuleko hitzarmena, 2011.


EAEan, emakumeen aurkako indarkeria matxistak biktima kopuru handia eragiten du urtero.

2020an, Ertzaintzak erregistratutako datuen arabera, **4.177 emakumek** jasan zuten indarkeria hori.





2020an, gutxitu egin da indarkeriako kasuen kopurua (-% 5,48), eta biktima diren emakumeen kopurua (-% 4,39) 2019ko datuekin alderatuta. Erregistratutako kasuen kopuruan nabarmena da COVID-19aren pandemiak izan duen inpaktua.

	BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK	BIKTIMIZAZIOAK
2019	4.419	5.518
2020	4.117	5.276
Urtetik urterako aldea	-% 4,39	-% 5,48




Azken urtean Ertzaintzak erregistratutako indarkeria-kasuen kopurua gutxitu egin den arren, **azken urteotako joera gorakorra izan da. 2020an erregistratutako kasuak 2010ean erregistratutakoak baino % 23,1 gehiago izan dira.**



Erregistro ofizialetako datuek arazoaren zati bat bakarrik bistaratzen dute

Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestaren (2019) arabera, Espainian bizi diren 16 urteko edo gehiagoko emakumeen % 1,8k jasan du bere bikotekide/bikotekide ohiarengandik indarkeria fisikoa eta/edo sexuala azken urtean, eta % 0,5ek sexu-indarkeria jasan du bere bikotetik kanpo.

Bi ehuneko horiek batuta, EAEn, 26.000 emakume izango lirateke. Beste nolabait esanda, estimazioen arabera, guztira egon daitezkeen biktima guztien % 16 izango lirateke 2020an Ertzaintzak erregistratutako 4.177 kasu horiek.



Oharra: Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestako (2019) datuak pertsonaren batek (gizonezkoa edo emakumezkoa) eragindako indarkeriari lotuta daude.

Ez dago biktimaren profilik; izan ere, adineko emakumeek eta gazteenek ere jasaten dute.



18 urtetik beherakoak: % **10,9**


18 eta 30 urte artekoak: % **24,9**

31 eta 50 urte artekoak: % **47,8**

50 urte baino gehiagokoak: % **16,4**

2002an eraildako emakumeen % **25ek 30 urte edo gutxiago zituen, eta % 31,25ek 50 urte baino gehiago.**

Indarkeria jasandako emakumeen % **63 EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaiotakoa da.**



Erasotzailearen profilik ere ez dago.

Indarkeria eragindako hamar gizonetik ia hiruk (% 27,8) gehienez 30 urte ditu.


18 urtez azpiko erasotzaileak erasotzaileen guztizko kopuruarekin alderatuta % 3,5 dira (% 3,68 2019an eta % 3,82 2018an).

ERASOTZAILEEN ADINA INDARKERIA MOTAREN ARABERA


2020	Bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeria	Familia barruko indarkeria	Sexu-askatasuna
% 18 urtez azpikoa	0,88	10,43	10,38
% 18-30 urte	23,32	24,03	35,77
% 31-50 urte	59,18	45,13	38,85
% 50 urte baino gehiago	16,64	20,40	15,00
% Guztira	100	100	100



2020an, Ertzaintzak bikotearen edo bikote ohiaren eremuan 3.814 indarkeria-kasu erregistratu zituen; hau da, 2019an baino % 6,66 gutxiago.



BIKOTEAREN EDO BIKOTE OHIAREN EREMUAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA. %. EAE, 2020






1.115
2020. urtea


1.008
2019.
urtea

+% 10,62

Bestalde, familia barruko eremuan 1.115 indarkeria-kasu (bikotekidea edo bikotekide ohia sartu gabe) erregistratu ziren; hau da, 2019an baino % 10,62 gehiago.


FAMILIA BARRUAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA IZAN EZIK), ADINAREN ARABERA. %. EAE, 2020





2020an, familiako eta bikotekidearen/bikotekide ohiaren eremutik kanpo **sexu-indarkeriako 347 kasu** zenbatu ziren; hau da, 2019an baino % 18,16 gutxiago.

FAMILIA EREMUTIK KANPO EMAKUMEEN AURKAKO SEXU INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEA, ADINAREN ARABERA. %. EAE, 2020




Indarkeria matxistak ez du soilik emakumearengan izaten eragina; izan ere, haren seme-alabengan edo etxean harekin batera bizi diren beste adingabe batzuegan ere ondorioak izaten ditu. **2015etik, legeriak seme-alabak indarkeriaren biktimatzat aitortzen ditu.** Ez dugu oraindik datu espezifikorik, baina Segurtasun Saila ari da gorabehera hori konpontzen.

Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko 2019ko Makroinkestako datuen arabera, azken 12 hilabeteotan indarkeria fisikoaren, sexualaren eta/edo psikologikoaren biktima izan den emakume bat duten etxeen % 46,1ean, adingabeak diren neska-mutilak bizi dira.




Zailtasunak zailtasun, emakumeak indarkeriatik ateratzeko aurrerapausoak ematen ari dira.

Emakumeen erdia baino gehiago (% 50,8) bananduta edo banantze-prozesuan zegoen beren bikotekide ohiak eraso egin zienean.




2002 eta 2020 artean eraildako emakumeen % 39,58, EZ zen bera erail zuen gizonarekin batera bizi.

Gainera, beharrezkoa da beste indarkeria matxista mota batzuen aurkako borrokan aurrera jarraitzea.



Ziberindarkeriak:

Sexu-askatasuna eta -ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko 2019ko txostenaren arabera, sexu-ziberdelinkuentziarekin lotutako gertakariak pixkanaka ugaritzen ari dira. 2019an, 1.343 biktimizazio gertatu ziren; horietako gehienak adingabekoen aurkakoak izan ziren (delitu horien guztizkoaren % 82,1).



Lan arloko indarkeria:

Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren datuen arabera, 2015ean, Espainiako emakumezko langileen % 1,5ek aipatu zuen bere lanaren baitan nahi ez zuen sexu-arreta jasan zuela azken hilabetean.

Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa:

2019an argitaratutako *Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketa Euskadin* ikerketaren arabera, 1.968 eta 2.292 emakume artean dira EAEn prostituzioan aritzen direnak. Haietatik, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima kopurua % 10 eta % 15 artekoa litzateke.

Emakumeen genitalen mutilazioa:

2018 eta 2019 artean, Osakidetza emakumeen genitalen mutilazioa izandako 129 kasu detektatu ditu guztira Euskadin: 67 kasu 2018an eta 62 kasu 2019an (migratu aurretik egindakoak).

Jazarpen errepikakorra edo “stalking”a:

Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko 2019ko Makroinkestako datuen arabera, Espainian bizi ziren 16 urtetik gorako emakumeen % 3k azken urtean jazarpen errepikakorra jasan du. % 3,7k 15 urte bete aurretik jasan du

Beharrezkoa da kontuan izatea **emakume batzuk zaurgarritasun bereziko egoeran daudela** indarkeria matxistaren aurrean.


Adineko emakumeak dira familia barruko indarkeria neurri handiagoan jasaten dutenak. Hain zuzen ere, 50 urte baino gehiagoko emakumeena da Ertzaintzak 2020an erregistratutako era horretako kasuen % 34,3.

Emakume gazteenek bereziki sexu-indarkeria jasaten dute: kasu horien % 38,7an, biktima adingabea da, eta % 73an 30 urtez azpikoa.

	Bikotekidearena/ bikotekide ohiarena	Familia barnekoa	Sexu- indarkeria
14 urtetik behera	% 0,1	% 17,0	% 16,4
14 - 17 urte	% 2,1	% 9,2	% 22,3
18-20 urte	% 5,6	% 4,7	% 13,0
21 - 30 urte	% 26,0	% 8,8	% 21,3
31-40 urte	% 32,0	% 8,7	% 11,6
41 - 50 urte	% 24,8	% 17,2	% 10,2
51 - 64 urte	% 7,6	% 21,0	% 2,8
65 urtetik gora	% 1,8	% 13,3	% 2,1
Guztira	% 100	100,0	100,0

Emakume migratuak:

2020an, jatorri atzerritarreko emakumeak ziren Ertzaintzak erregistratutako biktimen % 37 (1.542 emakume)



Desgaitasuna eta buru-gaixotasuna duten emakumeak:

Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestako (2019) datuen arabera, desgaitasuna duten emakumeen % 20,7k jasan du bere bikotekideren batek eragindako indarkeria fisikoa eta/edo sexu-indarkeria; proportzio hori % 13,8koa da desgaitasunik ez duten emakumeen kasuan.

Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arrisku larrian dauden emakumeak:

*EAE*n bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterlanean (2018) ikus dezakegun moduan, **kalean lo egin duen emakumeen % 23,4k jasan du sexu-indarkeria** (% 2,1ek gizonezkoen kasuan).

Neurri txikiko udalerrietan bizi diren emakumeak:

Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestako (2019) datuen arabera, ez dago alderik indarkeriaren prebalentzian, bizi diren udalerriaren neurriaren arabera. Baina **zenbat eta txikiagoa izan udalerria, orduan eta txikiagoa da salatzen duten edo laguntza formala edo informala bilatzen duten emakumeen ehunekoa** (% 32,1ekoa vs. % 61,3koa).